

VILLA MAGNOLIA
D MAILA**JOSE ELOSEGI ALKATEAREN HIRIBIDEA 19**

Egile ezezaguna, 1880 inguruan

Deskribapena

Etxea erabat eraldatuta dago, estalkiak batu izanaren ondorioz. Jatorrizko estalkietan hiru bolumen bereizten ziren, atal nagusia, garaiena bera, eta bi albo atal txikiago, zerbitzukoak, eta guztiok isurki bikoak ziren. Eraikineko jatorrizko estalki jokoan, outeau motako bi txapitula puntazorrotz simetriko nabarmentzen ziren, bere arbelezko akabera eta gailur horizontalarekin, horma pikoak ordezkatu zituzten-eta alboetan, baina geroago hormaz itxi zituzten. Isurkien oroitzapena baino ez dugu egun, eta elementu interesgarrietakoa zen horma pikoaren zurezko egituraren parte bat. Horma pikoaren estalkia bisera handi batez proiektatu zuten, bi gelarentzat komuna izango zen galeria bat sorraraztearren. Isurki bakoitzeko lima eta petralak besoak zeuzkaten, fatxadako bilbadura aizunaren marrazkitik abiatzen baitziren. Era berean, frontalak zutoin batean oinarritzen ziren, balkoi muturrean. AUrrealdeAurrealde horren apaingarria gapiario irten biak lotzen zituen tirante faltsu eta makotuxe bat zen, erdian pendoloi batek eusten ziola. Piezak lotzeko puntu guztiak zintzilikariak zeuzkaten erremate beheko aldean, eta palmak, berriz, goikoan. Bilbadura hegaldunari dagokionez, egun batean proiektatua gogorarazten duten gidalerroak baino ez dira geratzen, lerro zeharo zuzen eta apaundurak gabekin.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: estalkiak batu zituzten bi albo atalak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: jatorrizko bilbadurak eta adreiluzko itxiturak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.